

IRLANDA-KO BERRI

Txillardegi

Irlanda-tik datozen berriek lastu egiten dituzte abertzaleak: behin eta berriz ikusten dut hau arazoa aipatzen dudanean. Sinetsi ere ezin, eta «oso berri nahasiak» heltzen omen dira handik hizkuntzaren sailari dagokionez... «Nahasiak» benetan ?

Nik neuk, egia esateko, berri txarrak baizik ez dut irakurtzen. Eta egun hauetan gauza bera.

Irlanda-ko legeak dionez (Eire-ko legea jarri behar nukeen, baina ez zait bidezko iruditzen) kaminoetako ikurrak bi hizkuntzetara idatzi behar dira: ingelesez eta gaelikeraz. Areago, Irlanda-ko lege-hizkuntza («lehenengo lege-hizkuntza») gaelikoa denez geroz, handiago behar lit-

zateke izan gaelikozko ikurra ingelesezkoa baino.

Hots, beti bezala, britaindar inperialismo pean gertatzen zen bezalaxe: 1/ lekuri gehienetan oraindik ere kamino-ikur horiek ingeles hutsez jartzen dira gaur; 2/ zenbait lekutan («a few local authorities» irakurtzen dugu azkeneko CARN-en); oso leku gutxitan beraz, hobeki esateko, bi hizkuntzetan jartzen dira beroiek, baina letra handiagotan ingelesezko partea...

Hain zuzen ere, herri bat jartzen da eredu: Sligeach (Sligo ingelesez), bertako ikur horietan tamaina handiago eman baitzaie gaelikozkoei. Hots, harrigarria da hau gaurko Irlanda askatuan: «beste herrientzako jarraibide» bat da («an example to other towns»)... Baina kakoa hau da: 1972-an kanpaina gogor bat egin zutela gaelikoaren aldeko burrukalariak, ingeles hutsez izkiriaturik zeuden ikurrak beltzez zikinduz...

Are gehiago: gaelikorik gabeko kamino-ikur horiek legearen kontrakoa dira!

Bego hori, dena dela; kamino-ikurren arazoa baino askoz larriagorik ba dago-ta 1977-ko urte honetan.

Oso jokabide lotsagarrien bitartez Gaeltachta-rentzako (gaelikoz hitzegiten den «uharte» nagusiarentzako) lortu zen gae ikozko irratia arriskutan dago. Irrati horrek, eta horrek bakarrik, egunean 3 ordu t erdiz hedatzen du bere programa gaelikoz. (Dena esan dezagun, erresumako irratietan %-3 baizik ez da egiten gaelikoz, 1963-ko Txosten ofizialak gaelikoz, 1963-ko Txoten ofizialak aitortzen duenez!). Gaeltachta-ko irratia berezi hau, ordea, zuzendaririk gabe gelditu zen joan den Ekainean; eta, handik honeraino, Dublingo gobernuak nor jarri ez omen du aurkitu...

Gaelikoaren aldekoek, hortaz, Gaeltachtako Irratia bere gain harlezakeen pertsona bat aurkitu dute: Mac Aongusha jauna. Namibia-ko irratian luzaz ibilia, egoki izan bide liteke jaun hori. Dublingo gobernuaren aurkakoa omen da, ordea,



«Berri nahasiak»

eta izendatu nahi ez. «Gaelikomano» tzat jotzen dute Dublingo zuzendariak, eta hutsik dago postua orain dela urte erdi bat...

Gaelikozko irratia hau Dublin-ek kendu nahi ote duen beldurrez, manifestazio bat izan zen Dublinoan joan den Abenduaren 15-an. Telebistaren dorrera igo zen irlandar abertzale bat, bertan bi orduez geldituz. Eta lasaibide batzuk agindu zituen orduan gobernuaren ordezkari batek. Gaelikoaren aldekoak, halere, oso kezkatuta daude: gobernuak orain de la 15 urte, irratitari buruz, agindu zituenak ez ditu bete.

Kezka horien ondorioz, eta gaelikozko irratia ahulari eutsi nahiz, organizazio berri bat sortu dute abertzaleek: «Tionl» izeneko.

Ezertxo ere erantsi beharrik ba ahal dago ?.

Txillardegi

«Beste herrientzako jarraibide»

